



Lotura komunitarioak sendotzea bakardadeari heltzeko:

Esku-hartze eta programa
nagusien berrikuspena

ERANSKIN INFOGRAFIKOA




Bizkai Sare

Gizartea ehuntzen / Tejiendo la sociedad



Bizkaia

enplegua, gizarte kohesioa eta
berdintasuna sustatzeko saila
departamento de empleo,
cohesión social e igualdad



Botere publikoek **bakardade-egoeren prebentziorako** garatu dituzten **estrategiarik itxaropentsuenak**, gaiari **komunitate-loturak eta bestelako lotura sozialak** **sustatzearen** ikuspegitik heltzen diotenak dira. Estrategia horiek isolamenduarekin eta bakardadearekin lotutako arazoen izaera soziala azpimarratzen dute: lotura eta harreman pertsonalik ezak kausa indibidualak dituela eta, beraz, eremu pribatutik kudeatu behar dela dioen ideiaren aurrean, estrategia horiek isolamendu- eta deskonexio-egoeren azpian dauden dinamika sozial, kultural eta ekonomikoetan eragiten dute, gizarte-deskonezioa errazten edo prebenitzen duten baldintzatzaile sozialak —ekonomikoak, hezkuntzakoak, hirigintzakoak, kulturalak, harremanetakoak eta abar— kontuan hartuta.





2.1 Konexio Zerbitzuak Esperientziak



PRESKRIPZIO SOZIALA

Bromley by Bow Centre - BBBC

📍 Erresuma Batua



KONEKTORE KOMUNITARIOA

Konektore Komunitarioen Sarea

📍 Gales, Erresuma Batua



MENTORETZA SOZIALA

Mentor Proiektua

📍 Orihuela, Alacant

Foster Grandparent Program

📍 EEUU



2.2 Zuzeneko Esku-Hartzeak Esperientziak



BELAUNALDIARTEKO PROGRAMAK

Kuvu

📍 EAE eta Nafarroa



SARE SOZIALAK EHUNTZEA HELBURU DUTEN AISIALDI ETA DENBORA LIBREKO JARDUERAK

Programa Join Us

📍 Herbehereak

Nagusi Kafegunean

📍 Bilbao, EAE

Vacaciones Amigas

📍 Katalunia



2.3 Azpiegitura Erraztaileak Esperientziak



GARRAIO IRISGARRIA

Bus Buddies

📍 Gales, Erresuma Batua



ARRAKAL DIGITALA

Sky Up

📍 Erresuma Batua

Digital Heroes

📍 Gales, Erresuma Batua



HIRI EKIPAMENDUAK

*RECETAS - Re-imagining Environments for
Connection and Engagement Tesis Actions
for Social Prescribing in Natural Spaces*

📍 Bartzelona, Marseilla, Praga, Helsinki,
Melbourne eta Cuenca (Ekuador)

Receta Cultura

📍 Valentzia Hiria



2.4 Egitura Bideratzaileak Esperientziak



INGURUNE LAGUNKOIAK

Euskadi Lagunkoia



EAE

Grandes Vecinos



Espainia



BOLUNTARIOTZA SUSTATZEA

*Boluntario Seniorrak
Trukatzeko Europako
Sarea*



Europar Batasuna

*Boluntariotzarako
Dirulaguntzen
Programa*



Gales, Erresuma Batua

BizkaiaGara



Bizkaia



Bakardadeari aurrea hartu eta heltzeko esku-hartzeen eraginkortasunari dagokionean —horien izaera edozein delarik ere— literatura espezializatuak ez luke ebidentzia erabakigarriarik eskainiko.

Nolanahi ere, arrakasta-osagai moduan aintzatetsi daitezkeenak identifikatzen dira; hots, esku-hartzeen eraginkortasun handiagoarekin lotzen diren faktore edo elementuen multzo bat:



1

OINARRI TEORIKO SENDOA

Ikuspegi teoriko zehatz baten baitan diseinatu diren, oinarri teoriko argia duten eta ondo definitutako helburuak dituzten esku-hartzeek emaitza positiboagoak lortuko lituzkete bakardadea murrizterako orduan, oinarri kontzeptual sendorik ez duten eskuhartzeekin alderatuta.



2

KONPROMEZUA ETA INPLIKAZIOA

Parte-hartzaileak esku-hartzearen ekoizle gisa dihardutenean eta prozesuaren protagonista aktibo bihurtzen direnean, bakardadearen murrizketan emaitza positiboagoak lortuko lirateke.



3 PERTSONARENGAN OINARRI- TUTAKO ARRETA EREDUA

Pertsona hartzaileen ezaugarri eta beharretara egokitzen diren esku-hartzeak eraginkortasun maila handiagoa erakutsiko lukete.



4 PROFESIONALEK GIDATUTAKO ESKU-HARTZE PRESENTZIALAK

Aurrez-aurreko esku-hartzeak eta formakuntza egokia duten profesionalen bidez egiten direnak eraginkorragoak lirateke, boluntarioek edota parekoen taldeen baitan eginikoekin alderatuta.



5 KOMUNITATEAN ERROTZEA ETA PROZESUAREN JARRAIPENA

Bakardadearen aurkako esku-hartzeen eraginkortasuna handitu egingo litzateke espazio publikoetan edota eguneroko guneeetan garatzen direnean. Era berean, denboran zehar esku-hartzeei jarraipena egiteak emaitzak sendoagoak lortzea ekarriko luke.



Literatura espezializatuan identifikatutako ebaluazio gehientsuenak bakardadea ikuspegi indibidualetik lantzen duten esku-hartzeetan oinarritzen dira; horrenbestez, oinarri komunitarioa duten esku-hartzeen inguruko ebidentzia oso mugatua suertatzen delarik. Eskuragarri dagoen ebidentzia, nagusiki, azterketa espezifikoetatik eratorritako ondorio zehatzetara mugatzen da.



- 1 Preskripzio-sozialean** oinarritutako eskuhartzeek, oro har, eragin positiboak izango lituzkete bakardadea murrizteko ahaleaginean.



- 2** Zenbait azterlanek emaitza positiboak erakusten dituzte **mentoretza sozialean** oinarritutako esku-hartzeei dagokionean. Bakardadearen murrizketari lotuta, eragin positiboak ez lirateke mentoretzaren hartzail-etara mugatuko, mentore diren pertsonetan ere onurak identifikatzen direlarik.



3 Belaunaldiarteko harremana sustatzea funtsezko osagaia litzateke bakardadeari aurre egiteko esku-hartzeetan. Zentzu honetan, **belaunaldiarteko programak** eraginkorrak direla erakutsi dute komunitate mailan ongizatea hobetu eta bakardade-egoerak arintzeko, bai gazteen kasuan, eta baita adin nagusiko pertsonen artean.



4 Sare sozialak ehuntzea helburu duten aisialdiko eta denbora libreko jarduerak emaitza oso onak lortuko lituzkete bakardade egoeren prebentzioan eta baita arintzean. Eskuragarri dauden emaitzak, hein handi batean, epe laburreko efektuak identifikatzen dituzte. Behatutako eragin positiboak, batez ere, jarduera kulturalekin lotutako esku hartzeetan identifikatzen dira. Aldiz, beste esku-hartze mota batzuek, esaterako, jarduera fisikoa sustatzen dutenak, bakardadearen murrizketan eragin txikiagoa dutela dirudi.